



---

## **Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

sarrerak horretarako nahikoak direnean), eta esparru geografiko desberdinetako esleipendunen artean etxebizitza babestuen truke egiten denean salbu.

- Hala ere, ikusi da gaur egun estali gabe dauden zenbait aldaketa-premia daudela, eta etxebizitza babestuaren parkearen gizarte-funtzioa bermatzeko helburua betetzeko, etxebizitza-politika publikoen erantzunen bat izan beharko lukete (adibidez asko handitzen diren familiak). Horregatik, etxebizitza babestuko parkean trantsiziorako aukera asko aurreikusten dira, baita prozedura estandarizatuagoak eta salbuespenetik kanpokoak garatzea ere.

## **9. ARDATZA PREMIA BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOEN TRATAERA ESPEZIFIKOA**

### **9.1 HELBURU NAGUSIAK**

- Biztanle-kolektibo kaltetueneren, premia-egoera larrian daudenen eta/edo eskatzaile-kolektibo berrien bizitegi-premiei erantzutea.
- Eusko Jaurlaritzaren jardunei ahalik eta etekinik handiena ateratzea, beste gizarte-agente batzuekin koordinatuz.

### **9.2 JARDUN ILDOAK**

#### **Diskriminazio positiboko politiken xede diren kolektibo berrien identifikazioa eta definizioa**

- Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez, 2002-2005eko Planean ezarritakoarekin bat eginik, zenbait gizarte-kolektiboaren diskriminazio positiborako jardun-politika bat garatu du dagoeneko: 35 urtetik beherako gazteak, seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak, mugitzeko ezintasuna duten pertsonak, familia ugariak, genero-indarkeriaren biktimak, eta Etxebiden lau urte baino gehiago erregistratuta dauden pertsonak.
- Hala ere, EAEn izandako errealitate sozioekonomikoaren aldaketen, inguruko arau eta legeen aldaketen (Autonomia Pertsonalaren eta Mendetasunaren Legea epe laburrean onartuko da) eta Eusko Jaurlaritzaren aukeren bilakaeraren ondorioz, 2006-2009ko Planak politika horien ikuspegia zabaltu nahi du, diskriminazio politikan kolektibo berriak sartuz: 65 urtetik gorakoak, dibortziatuak/bananduak, bestelako ezintasunak dituztenak (sentsorialak, adimenekoak...), etxebizitza desegokien titularrak, bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboak...



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### Diskriminazio positiboko neurriak indartzea

- Alokairu babestuaren sustapena da diskriminazio positiboko neurri nagusietako bat. Etxebizitza babestuko sustapenetan alokairuaren zenbatekoa maizterraren diru-sarreraren arabera ezartzen da, eta diru-sarrera txikiak dituzten kolektiboek etxebizitza lor dezakete gizarte-errentako prezioekin (gutxi gorabehera 200 euro/hilabete). Bestalde, Bizigune programak bermatuko du maizterrek gehienez ere bere diru-sarreraren % 30 ordainduko duela alokairurako, eta zenbait kasutan maizterrek kopuru txikiagoak ordaintzen dituzte. Are gehiago, Jaurlaritzaren parke iraunkorren etxebizitza sozialak lehendik aipatutako baino zenbateko nahiko txikiagoekin alokatzen dira. Gainera, Plan honetan aurreikusten da alokairuko etxebizitza sozial guztien errentak parekatzeko aukera aztertzea, maizter guztiek alokairu soziala baldintza berdinetan lortzeko.
- Hori guztia dela medio, Plan honetan alokairu babestuari eman nahi zaion bultzada, eta beste agente batzuen (Udalak, eta abar) parte-hartze aktiboa, diskriminazio positiboaren elementu nagusiak dira. Alokairu babestuko etxebizitzak irtenbide egokia izan daitezke etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat, bananduentzat edo dibortziatuentzat, edo gutxiengo etnikoentzat edo etorkinentzat. Eta, horregatik, ezinbestekoa da alokairu babestuko programetan gizarte-agenteei protagonismo handiagoa ematea, askotan pertsona horiek arreta osoa eta beren egoeraren jarraipen pertsonalizatua (Ikus 2. ARDATZA informazio gehiago lortzeko).
- Etxebizitza babestuko sustapenen zozketen kupoak, Eusko Jaurlaritzaren politiketan diskriminazio positiborako mekanismo nagusietako bat dira. Kupoen bitartez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak desabantaila sozioekonomikoko egoeran dauden kolektiboek etxebizitza babestu bat lortzeko aukera handiagoak ematen dizkie. Beraz, gaur egun 35 urtetik beherako gazteentzako, ezintasun finkoa dutenentzako, seme-alabak beren kargura dituzten guraso bakarreko familientzako, familia ugariarentzako eta etxeko indarkeriaren biktimeentzako kupoak daude. Gainera, 2006-2009ko Planak aurreikusten du kupo berezi bat egingo dela motrizitatekoak ez diren ezintasunak dituzten pertsonentzat, banandu eta dibortziatuentzat, ondorengoak dituzten bizikidetzaren unitateentzat eta adinekoentzat.
- Era berean, 8 ARDATZEAN adierazi den bezala, 2006-2009ko Planean sustapen guztiei kupoen sistema malgutzea aurreikusi da, horien kalifikazioaren, sarbide-erregimenaren eta abarren arabera, eta horrekin lortu nahi da jarduteko nahikoa marjina izatea premiarik larriena duten kolektiboek bere egoeraren arabera egokiena den sustapenetan aukera handiagoak dituztela ziurtatzeko. Horrez gain, zozketaren aurreko baremo bat ezartzeko aukera proposatu da, premia-egoeraren arabera pertsonen beste diskriminazio bat egiteko, zehazki esanda bizikidetzaren unitatearen tamainarekin, neurri handiko unitateen alde eginez, horien erregistratze egokia bultzatuz (bereziki azpimarragarria da Etxebiden pertsona asko bananduta daudela erregistratuta, benetan bikote gisa bizi diren edo bizi nahi duten arren) eta unitate horiei



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

zerbitzu hobea eskainiz (premietara egokitzen den tamainako etxebizitza babestua esleitzea).

### B.8 koadroa 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planeko babes publikoko etxebizitzaren zozketan aplikatu beharreko kupoak

ALOKAIRUA	AZALERA ESKUBIDEA*
<b>A: Ezintasuna duten pertsonak.</b>	<b>A: Ezintasuna duten pertsonak.</b>
<b>B: Babes Bereziko Gizarte Egoerak: seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak, genero-indarkeriaren biktimak, bananduak, 70 urtetik gorakoak, ezintasun psikikoa duten pertsonak.</b>	--
<b>C: 4 urtetik gorako antzinatasuna.</b>	<b>C: 4 urtetik gorako antzinatasuna.</b>
<b>D: 25 eta 35 urte bitartekoak.</b>	<b>D: 25 eta 35 urte bitartekoak.</b>
<b>E. Orokorra.</b>	<b>E. Orokorra.</b>
<b>F: 3 kide baino gehiagoko familiak, azalera handiko etxebizitzak daudenean.</b>	<b>F: 3 kide baino gehiagoko familiak, azalera handiko etxebizitzak daudenean.</b>

\* Derrigorrezko kupoak.

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.

- Eusko Jaurlaritzaren laguntza-ildoetan kolektibo behartsuenei arreta berezia eskaintzen zaie. Adibidez, birgaitzeko laguntzetan sarrera txikiak dituztenei eta kide kopuru handiena duten bizikidetza-unitateei laguntzen zaie, eta minusbaliatuentzat obrak egiteko laguntzen atal espezifikoa dago. Era berean, Eremu degradatuak eta BIAak eraberritzeko programek bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboak zuzenduta daude. Bestalde, irisgarritasuna hobetzeko Udalekin lankidetzan egiten diren programek minusbaliatuei eta adinekoei zuzenduta daude.
- Beraz, 2006-2009ko Planak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren laguntza-ildoetan kolektibo horiei ematen zaien lehentasuneko tratuari jarraitu nahi du, lehenago aipatutako beste zenbait kolektibo gaineratuz. Adibidez, ezintasun sentsoriala duten pertsonen osatutako familiek etxebizitza bere premietara egokitzeko laguntza-ildo bat gauzatuko da. Beste zenbait kasutan, adibidez ezintasun intelektualeko kolektiboaren kasuan, egokiagoa dirudi bizitegi-alojamenduak sortzeko edo pertsona horientzat egokitutako etxebizitzak sortzeko politikak ezartzea (horiek taldetan bizitzeko, tutore baten gainbegiratzearekin, eta abar).
- Zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuei dagokienez (alkoholikoak, droga-menpekoak, buru-gaixoak, gizarteratzen ari direnak, eta abar), ikusten da beste agente batzuekin (Udalak eta Aldundiak) lankidetzan indartzen jarraitu behar dela, premia horiei epe luzean arreta eskaintzeko sistema bat sortzeko (askotan, bizitegi-zentro bat uzten duten pertsonen ez dute alojamendu bat erakunde horretatik kanpo bizitzeko, eta lehenago helbidera ezin dutenez joan, etxerik gabe geratzeko arriskuan daude).



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Eusko Jaurlaritzak adierazi nahi du beste gizarte-agenteeekin lankidetzan jarduteko prest dagoela (batez ere Udalekin eta Aldundiekin), udaletako eta aldundietako gizarte-ongizateko zerbitzuek erabiliko dituzten etxebizitza babestuak eskaintzeko, gizarte-bazterkeria arriskuan dauden kolektiboek arreta eskaintzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren kasuan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Etxebizitza Sailburuordetzatik Gizarte Gaien Sailburuordetzara etxebizitza babestuak lekualdatzeko prozedurak gaituko ditu, jardun-ildo honen helburuak betetzeko.

## Lehentasunezko arretako kolektiboekin komunikazioa sendotzea

- Eusko Jaurlaritzak, herritarren parte-hartzerako Oan ezarritakoaren ildotik, lehentasunezko arretako kolektiboekin komunikazioa indartu nahi du.
- Zenbait kasutan, kolektibo horiek elkarte ezberdinetan antolatuta daude, eta errazagoa da Sailaren jardunei buruzko iritzia eta balorazioak lortzea (Ijito Herriaren Sustapenerako Kontseiluaren Etxebizitza Foroaren kasua, Euskal Herriko Guraso Bananduen Elkartearen Federazioa eta abar).
- Bestetan, kolektibo horiek ez dute ordezkaritza-organorik, eta komunikaziorako bideak konplexuagoak dira eta arazoak ezagutza hurbilagoa duten beste agente batzuekin lan egin beharko da (GKEak, Cáritas, eta abar).
- Edonola ere, kasu bakoitzean erabilitako komunikazio-eredua edozein izanik ere, jaurlaritzak kolektibo horiekin lehendik zeuden harremanak estutu nahi ditu eta premiei erantzun egokia emateko neurriak hartzen jarraitu nahi du.
- Gainera, elkarte horien bitartez, Jaurlaritzak informazioa eman eta eskuratu nahi du.

## Gizarteratzearen alorrean lan egiten duten agenteekin koordinazio handiago lortzea

- 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planean, Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez, alokairu babestua sustatzeko politikak indartuko ditu, errenta-mailarik txikienak eta bestelako gizarte-arazoak dituztenentzat. Hala ere, Jaurlaritzaren ahaleginek emaitza ona izateko ezinbestekoa da pertsona horien arretan erantzukizuna duten agenteekin lankidetzaz hobetzea.
- Atal honetan, Udaletako eta Foru Aldundietako gizarte-ongizateko eta gizarteratzeko zerbitzuen eskumenak aipatu behar dira, kolektibo horien trataeran esperientzia zabala eta ezagutza asko dituztelako. Era berean, ez da



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- ahaztu behar beste elkarte batzuk esparru horretan egiten duten lana (Gurutze Gorria, Cáritas, eta abar).
- Era berean, Eusko Jaurlaritzaren egituraren barruan, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak kudeatzen dituen Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) aipatu behar dira, oso aurrekontu garrantzitsua baitute, eta zatirik handiena diru-sarrerara txikiak dituztenei etxebizitza mantentzeko gastuei aurre egiteko aukera emateko bideratzen dira (batez ere alokairua ordaintzeko).
  - Azpimarratu behar da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, gizarte gaien alorrean dituen eskumenak dituenek, zeregin garrantzitsua duela gai honetan. Alde batetik, Plan honen jardunak Gizarteratzeko Planean eta Immigrazio Planean bildutako jardunetan oinarritu behar dira. Bestetik, kontuan izan behar da Eraiki prozesuaren barruan, non EAEko gizarte-gastua Europako batez bestekoarekin parekatu nahi den, Eusko Jaurlaritzaren gizarte-politiken protagonismo handiagoa aurreikusten dela.
  - beraz, agente guztien ahaleginak bateratu behar direla kontuan izanik, Eusko Jaurlaritzak Bazterkeria handiko Kolektiboen trataera osorako sare baten sorkuntza aztertu behar dela proposatu da. Sareko kide bakoitzak bere baliabideak eta ezagutzak eskaini ditzake, eta Sailak emandako etxebizitzari Aldundien eta Udalen giza baliabideen sarea gaineratuko zaie.
  - Etorkinei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak beharrezko ahaleginak egingo ditu kolektibo hori behar bezala gizarteratzeko, eta etxebizitzari dagokionez, udalekin lankidetzan, pertsona horiek lurraldean sakabanatuta bizitzea ahalbidetzen duten jardunak bultzatuko ditu, bertakoekin integratzeko formula egoki gisa, esparru bakoitzetik datozen pertsonak elkartzeko beharrezkoak diren komunikazio tresnak bermatuz.